

**CAMPAÑA DE LA PASTORAL
SOCIO-CARITATIVA
24 DE MARZO DE 2019**

**Transforma
y confía**

Tu compromiso
mejora el mundo

24 de marzo de 2019



 **Caritas**
Gipuzkoa

www.caritasgipuzkoa.org
   

GUION LITÚRGICO

CAMPAÑA DE LA PASTORAL SOCIOCARITATIVA
24 de marzo de 2019

“TRANSFORMA Y CONFÍA”

Entrada:

Bienvenidos a la celebración eucarística. Estamos ya casi en la mitad de la Cuaresma y, de nuevo el Señor nos llama a la conversión y a no desfallecer en el intento. En este contexto penitencial, la Pastoral sociocaritativa de la Diócesis a través de Caritas, Pastoral de la Salud y la Pastoral Penitenciaria, nos invita a construir una comunidad que transforma y confía. Este es el lema de este año. Una Iglesia convertida transforma la sociedad y unos cristianos con fe auténtica, se transforman y construyen algo que merece la pena, para el bien de los más necesitados de nuestro mundo.

Acto Penitencial

Reconozcamos, con la ayuda del Señor, esos pecados que tanto daño hacen a la vida comunitaria y social, desde el arrepentimiento más sincero. Digamos todos juntos: Yo confieso ante Dios todopoderoso y ante vosotros, hermanos que he pecado....

Y ahora invoquemos a quien de verdad nos ama y nos cuida diciendo: Señor, ten piedad. Cristo, ten piedad. Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. Amén.

Monición a las Lecturas

Las lecturas nos hablan de un Dios que se manifiesta en lo que es y está siempre con nosotros, para que no caigamos en maldades sino que nos convirtamos y demos frutos abundantes, signo de la transformación en la verdad y la paz.

Apuntes para la Homilía

Estamos en una sociedad en la que hay mil situaciones que reclaman nuestra atención: los inmigrantes, la gente mayor, la intolerancia de mucha gente, las formas de odio que están con nosotros, la violencia de diverso tipo, los juicios de valor que hacemos sin ninguna misericordia, la desconfianza, cierto espíritu de venganza... Por otra parte, cada día nos enteramos de nuevas tragedias naturales o provocadas. Constatamos, a nuestro alrededor, entre amigos y conocidos, sufrimientos causados por enfermedades, la mala convivencia, el paro,

los problemas familiares. Es evidente que, como cristianos, no podemos quedar indiferentes ante tanto sufrimiento, mirando siempre al bien vivir y a los que parece que lo tienen todo resuelto.

Creemos en un Dios que no está indiferente o lejano a los sufrimientos de este mundo nuestro. Goza con el bien y sufre con el mal, digámoslo así. No puede soportar el sufrimiento de la humanidad como vemos hoy en el diálogo con Moisés de la primera lectura. El Señor le dijo: he visto el sufrimiento de mi pueblo en Egipto y he oído sus quejas contra los opresores; conozco sus padecimientos... He bajado para librarlo de ellos y a sacarlo de esta tierra para llevarlo a una tierra fértil y hermosa...

Aquí está nuestro ser y nuestro hacer. Ser comunión fraterna y hacer que nadie padezca miseria y violencia. Estamos llamados a dar fruto de conversión, de transformación de vida nueva y, eso sólo se puede hacer como nos recuerdan Caritas, la Pastoral de la Salud y la de las Cárceles, sintiendo el dolor de los otros, los sufridores, como propio. Siendo conscientes de que las injusticias hay que repararlos. Trabajando con generosidad por los que están peor que nosotros. Asumiendo cargos y responsabilidad para el bien común, sin estar mirando exclusivamente por lo nuestro, sino mirando un poco más lejos, por un futuro siempre mejorable.

Como dice el Papa Francisco, “la pobreza nos desafía todos los días con sus muchas caras marcadas por el dolor, la marginación, la opresión (...), el tráfico de personas y la esclavitud, el exilio, la miseria y la migración forzosa”. Este desafío resulta “cruel”, cuando constatamos que estas situaciones no son el fruto de la casualidad, sino la consecuencia de la injusticia social, de la miseria moral, de la codicia de unos pocos y de la indiferencia generalizada de muchos. «Una auténtica fe cristiana –que nunca es cómoda ni individualista- siempre implica un deseo profundo de cambiar el mundo, de transformar valores, de dejar algo mejor detrás de nuestro paso por la tierra... La Iglesia no puede ni debe quedarse al margen en la lucha por la justicia».

Transforma y confía, nuestro lema, significa cultivar la espiritualidad de la ternura y la caridad transformadora que brota del corazón y es motor del compromiso, realizando gestos sencillos y cotidianos de solidaridad e impulsando el desarrollo integral de las personas más pobres desde el amor que nos hace descubrir las carencias y necesidades del otro, y también sus capacidades y posibilidades.

Amar se torna, entonces, en la hermosa tarea de ayudar al otro a ser, a crecer, a desarrollarse en todas las potencialidades de su persona. Y proyectado esto a la acción caritativa y social, la caridad nos lleva a superar el asistencialismo y a promover el desarrollo integral, un desarrollo que trata de integrar cuerpo y alma, la dimensión individual y comunitaria, lo personal y lo social.

Oración de los fieles

Invoquemos la misericordia de Dios sobre todos los hombres y mujeres de la tierra, presentando nuestras plegarias.

- Para que la Iglesia viva este tiempo cuaresmal con el deseo de una profunda conversión para dejarse transformar por el Espíritu. Roguemos al Señor.
- Para que los que se preparan para recibir los sacramentos de la iniciación cristiana, el bautismo, la confirmación y la eucaristía, experimenten el gran regalo de haberse encontrado con Jesucristo. Roguemos al Señor.
- Para que todos aquellos que viven situaciones de grave necesidad (los más pobres, los enfermos, las víctimas de todo tipo) encuentren en nosotros el respeto debido y la ayuda solidaria necesaria. Roguemos al Señor.

- Para que todos los lugares del mundo que viven en situaciones de conflicto puedan encontrar el camino hacia la paz definitiva. Roguemos al Señor.
- Para que, los que nos hemos reunido este día para celebrar la Eucaristía, seamos personas sólidas en la espiritualidad y las buenas obras. Roguemos al Señor.

Escúchanos, Señor, Jesús, nuestras plegarias y haz que caminemos más unidos a Ti. Tú, que vives y reinas por los siglos de los siglos. Amén.

Despedida

En la Pastoral Sociocaritativa desde Caritas, la Pastoral Penitencia y la Pastoral de la Salud, nuestra Iglesia trabaja por la justicia, por la transformación y la vida nueva, ciertamente, pero sabemos que, el amor, supera ese mínimo necesario de dar a cada uno lo suyo. Nosotros somos una comunidad cristiana que nos dejamos cambiar, convertir e iluminar por la presencia viva de un Cristo salvador y liberador.

**PASTORALTZA SOZIO-KARITATIBOAREN
KANPAINA
2019KO MARTXOAK 24**

**Itxuraldatu
eta izan
konfiantza**

Zure konpromisoak
mundua hobetzen du

2019ko martxoak 24a



 **Caritas**
Gipuzkoa

www.gipuzkoa.org
   

GIDOI LITURGIKOA

PASTORALAREN KANPAINA SOZIOKARITATIBOA
2019ko martxoaren 24a

"ITXURALDATU ETA IZAN KONFIANTZA"

Sarrera:

Ongi etorri eukaristiaren ospakizunera. Jadanik, ia, Garizumaren erdian gaude, eta berriro ere Jaunak, konbertsiorako, eta saiakeran ez ahultzeko deia egiten digu. Penitentziazko testuinguru honetan, Elizbarrutiko Pastoral soziokaritatiboak, Caritasen, Osasunaren Pastoraltzaren eta Espetxe Pastoraltzaren eskutik, itxuraldatu eta konfiantza izan nahi duen komunitate bat eraikitzen gonbidatzen gaitu. Hau da aurtengo leloa. Eliza berri batek gizartea antzaldaten du, eta benetako fedea duten kristauek eraldatu egiten dira, eta merezi duen zerbait eraikitzen dute gure munduko behartsuenen onerako.

Penitentzi ikurra

Damurik zintzoenetik, Jaunaren laguntzarekin, elkar-bizitzari eta bizitza sozialari hainbeste kalte egiten dioten bekatu horiek onartu ditzagun. Esan dezagun denok batera: aitortzen diot Jainko guztiz ahaltsuari, eta zuei ere bai ene senideoi, bekatu egin dudala....

Eta orain, benetan maite eta zaintzen gaituenari erregutu diezaiogu: erruki Jauna. Kristo, erruki. Erruki Jauna.

Jainko ahalguztidunak gurekiko errukia izan dezan, gure bekatuak barkatu eta betiereko bizitzara eramango gaitzala. Amen.

Irakurgaien sarrera

Irakurketek, den bezalakoak, eta beti gurekin dagoen Jainko bati buruz hitz egiten digute, makurkerietan erori ez gaitezen, baizik eta eraldatu eta fruitu ugari eman ditzagun, egiaren eta bakearen eraldaketaren adierazgarri.

Homiliarako iradokizunak

Gure arreta eskatzen duten mila egoera dauden gizarte batean bizi gara: etorkinak, adineko pertsonak, jendea askoren intolerantzia, gure artean dauden gorroto-moduak, era askotako indarkeria, inolako errukirik gabe egiten ditugun epaiketak, mesfidantza, nolabaiteko mendeku izaera... Bestalde, egunero, zoritxar albisteak jakiten ditugu, naturalak edo probokatuak. Gure inguruan, lagun eta ezagunen artean, gaixotasunek, bizikidetzak txarrak, langabeziak, familia arazoek... sortutako sufrimenduen berri izaten dugu. Bistakoa da, kristau gisa, ezin dugula hainbeste sufrimendu aurrean axolagabe geratu, beti, ongi bizitzeari, eta guztia eginda dutenei soilik begira jarritz.

Gure mundu honen sufrimenduei axolagabe edo urrun ez dagoen Jainko batean sinesten dugu. Onarekin gozatu, eta gaiztakeriarekin sufritzen duena, alegia. Ezin du gizateriaren sufrimendua jasan, lehen irakurketan, Moisesekin izandako elkarrizketan ikusi dugun bezala. Jaunak esan zion: nire herriaren sufrimendua ikusi dut Egipton, eta bere zapaltzaileen aurkako kexuak entzun ditut: ezagutzen ditut beraien pairamenak... Beraiengandik askatzeko, eta lur honetatik atera, eta beste emankor eta eder batera eramateko jaitsi naiz...

Hemen dago gure izate eta egitea. Anaiarteko elkartasuna izatea, eta inork miseria eta indarkeria ez jasatea. Aldaketara deituak gaude, bizitza berriaren eraldatzaile, eta, hori bakarrik lortu daiteke, Caritasek, Osasuna eta Espetxe Pastoraltzak gogorarazten digun bezala, besteen mina sentituz, sufritzaileak, norberarena izango balitz bezala. Injustizien jakitun, bidegabekeriak konpondu behar ditugu. Gu baino okerrago daudenen alde eskuzabaltasunez lanean arituz. Guztion onerako, karguak eta erantzukizunak nor bere eginaz, gureari bakarrik begira egon gabe, baizik eta urrutiago begiratzuz, etorkizuna beti hobeto baten alde.

Frantzisko Aita Santuak dioen bezala, "Pobreziak desafio egiten digu egunero, oinaze, bazterkeria, zapalkuntzaz beteriko bere aurpegi askorekin (...), pertsonen salerosketa eta esklabotza, deserria, miseria eta nahitaezko migrazioa". Erronka hori "krudela" da, egoera horiek kasualitatearen ondorio ez direla egiaztatzen dugunean, baizik eta bidegabekeria sozialaren, miseria moralaren, gutxi batzuen dirugosearen eta askoren desberdintasun orokortuaren ondorio. "Benetako kristau fedea –inoiz ez da ez eroso ezta indibidualista ere–, beti du mundua aldatzeko desio sakona, baloreak eraldatzeko, lurretik gure joan-etorriaren ostean zerbait hobea uztekoa... Elizak ezin du justiziaren aldeko borrokan albo batera geratu".

Itxuraldatu eta izan konfiantza, gure leloak, samurtasunaren espiritualtasuna, eta bihotzetik irteten den karitate eraldatzailea ereitea esan nahi du, eta konpromisoaren motorra da; elkartasun keinu samur eta egunerokoak eginez, eta maitasunak, pertsona txiroenen garapen oso-osoa bultzatuz, bestearen gabezi eta beharrak erakusten dizkigu, eta baita bere gaitasunak eta aukerak ere.

Maitatzea, orduan, besteari laguntzeko, hazten laguntzeko eta bere pertsonaren ahalmen guztietan garatzen laguntzeko lan eder horretan bihurtzen da. Eta hori, ekintza karitatibo eta sozialera eramanda, karitateak asistentzialismoa gainditzen laguntzen digu, eta baita garapen osoa sustatzen ere; gorputza eta arima, norbanakoaren eta gizartearen dimentsioa, eremu pertsonala eta soziala, integratzen laguntzen duen garapena, alegia.

Herri otoitza

Erregutu dezagun Jainkoaren errukia lurreko gizon eta emakume guztientzat, gure otoitzak aurkeztuz.

- Elizak, Espirituaz eraldatzeko, Garizuma garai hau, konbertsio sakon baten bitartez bizi dezan. Eska diezaiogun jaunari.
- Kristau sarbideko sakramentuak, bataioa, sendotza eta eukaristia jasotzeko prestatzen ari direnak, Jesukristorekin topo egin izanaren opari handia izan dezaten. Eska diezaiogun jaunari.
- Premia larriko egoerak bizi dituzten guztiek (pobreenek, gaixoek, era guztietako biktimek) gugan errespetua eta beharrezko laguntza solidarioa aurki dezaten. Eska diezaiogun jaunari.

- Gatazkan bizi diren munduko leku guztiek behin betiko bakerako bidea aurkitu dezaten. Eska diezaiogun jaunari.
- Egun honetan Eukaristia ospatzeko bildu garenok espiritualtasunean eta lan onetan, pertsona sendoak izan gaitzen. Eska diezaiogun jaunari.

Entzun Jauna, Jesus, gure eskariak, eta Zuregandik are gertuago ibili gaitzela. Jainko eta errege baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Agurra

Pastoral Soziokariatiboaren eskutik, Caritas eta Espetxe eta Osasunan Pastoraltzak, gure Elizak, justiziaren, eraldaketaren eta bizitza berriaren alde egiten du lan, bai, baina badakigu, maitasunak, bakoitzak berea emateko behar duen gutxienezko hori gainditzen duela. Kristo salbatzaile eta askatzailearen presentzia biziagatik, aldatzen, konbertitzen eta argizatzen uzten garen kristau elkarte gara.